



-tx, -tz, -ts bukaerak
eta
-tzat atzizkia



Zein da aldaera zuzena?

- *Estepa basamortu **hotz-tzat** hartu da batzuetan,*
- *Estepa basamortu **hotztzat** hartu da batzuetan,*
- *Estepa basamortu **hotzat** hartu da batzuetan,*
ala
- *Estepa basamortu **hoztzat** hartu da batzuetan?*



Zein da aldaera zuzena?

- *Erlatiboaren zenbait erabilera **trakets-tzat** jotzen ditugu,*
- *Erlatiboaren zenbait erabilera **traketstzat** jotzen ditugu,*
- *Erlatiboaren zenbait erabilera **traketzat** jotzen ditugu,*
ala
- *Erlatiboaren zenbait erabilera **trakestzat** jotzen ditugu?*



Auzi honi buruz, JAGONETek diosku Euskaltzaindiak ez duela oraindik araurik eman morfologia-auzi horretaz, baina, OEHko corpora aztertuta, nabari dela aldaera horietako bat nagusitu dela tradizioan, adibide gehiegi aurkitu ez arren.

- *Estepa basamortu **hoztzat** hartu da batzuetan.*
- *Erlatiboaren zenbait erabilera **trakestzat** dauzkagu.*

Jagonet galde-erantzunak (Euskaltzaindiaren kontsulta-zerbitzua)
OEH (Orotariko Euskal Hiztegia)



Alegia, honako aldaera hau:

-ts		-stzat
-tx	+	-txat
-tz		-ztzat



Hona hemen testuetatik harturiko zenbait adibide:

- Lapur, gezurri, salatari, bortxatzaile eta hiltzaile **hustzat** zituen denak. (**huts** + **-tzat**)

Mikel Antza, Ospitalekoak Susa, 2010

- (...) gorputza subjektua litzateke, nolakotasuna, berriz, subjektuari itsatsita dago; hots, gogoa **gorpuztzat** hartu zutena– subjektua da (...) (**gorputz** + **-tzat**)

San Agustin, Hainbat idazlan Klasikoak, 2003. (Imanol Unzurrunzagak euskaratua)

- Jende gehienak prozesu logiko huts-**hustzat** dauka ikerkuntza, eta jarduera hotz eta **zorrotzat**. (**zorrotz** + **-tzat**)

François Jacob, *Sagua, eulia eta gizakia* ZIO bilduma, 2004. (Juan Garziak euskaratua)



Hona hemen testuetatik harturiko zenbait adibide:

- Beranduegi zetorren, baina harrezkero, behinik behin, euskal **hiztzat** jo dira *abendu, aingeru, arraza, eskola, familia, kantatu, kolore, mundu* tankerako hitz ugariak (...) (**hitz** + **-tzat**)
 Koldo Zuazo, *Euskara batua*, Elkar, 2005
- Kanpotik etorritako zaldien apatx-hotsak esnatu ninduen nik lo kuluxkatzat ez, baizik eta **amestzat** joko nukeen egoera batetik (...) (**amets** + **-tzat**)
 Wilkie Collins, *Ilargi-harria* Elkar-Alberdania, 2008. (Antton Olanok euskaratua)
- Ezezaguna, gajoa izan zein gizajoa, ez dute harrezkero matematikariek izaki **arroztzat** baztertzen. (**arrotz** + **-tzat**)
 Denis Guedj, *Loroaren teorema* ZIO bilduma, 2005. (Jon Muñozek euskaratua)



Berdin jokatu behar dugu **-tsu** atzizkiarekin.

-ts

-stsu

-tx

+

-tsu

-xtsu

-tz

-ztsu



Berdin jokatu behar dugu **-tsu** atzizkiarekin.

- 1894an, itsasargi bat eraiki zuten Stephens uhartea izeneko arroka bakarti batean, Zeelanda Berriko Ipar eta Hego uharteen arteko pasabide **ekaiztsuan**, eta itsasargiaren zaintzailearen katuak txori txiki bitxiak ekartzen zizkion nagusiari.

(**ekaitz** + **-tsu**)

Bill Bryson, *Ia denaren historia labur bat* Elhuyar, 2009. (Ixiar Izak euskaratua)

- Hala gertatzen da Lurraren nukleoa eta haren paisaia **harkaiztsuak** eratzen dituzten elkartzeen kasuan.

(**harkaitz** + **-tsu**)

Peter William Atkins, *Erreinu periodikoa*, ZIO bilduma, 2011. (Juan Garziak euskaratua)



Azken oharra:

Atzizkia lotzeak dakarren forma-aldaketak hitzaren ezagutzea zailtzen badu, marratxoz lot daiteke **-TZAT** atzizkia.

bat + -tzat

- batzat (?)
- bat-tzat